

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Eguna: 2020ko irailaren 16a, asteazkena.

Ordua: 20:00.

2020ko urriaren 14ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo Udaletxeko bilkuren aretoan Eduardo Terroba Cabezón alkatearen (EAJ-PNV) lehendakaritzapean, Udalbatza Osoaren bilkura egiteko elkartu dira honako zinegotzi jaun/andreak: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Belouqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Bilkura eratu den uanean bertan ez zeuden zinegotziak: inor ez.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bilkuran izan da, idazkari gisa.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

Saioa alde aurretik eta arauzko publikizatearekin deitu da, eta honako hau izan da gai-zerrenda:

Gai-zerrenda

1. Onestea 2020ko uztailaren 8ko aurreko ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea**
 - 3.1. Arabako Errioxako Kuadrillari eskumenak eskuordetzea HHSak biltzeko eta tratatzeko.
 - 3.2. HHSak biltzeko eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen eskualdeko ordenantza onestea.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**
5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**
 - 5.1. Lehen arretaren barruan pediatriako kontsultarako udal-jabetzeko eraikinean aldi baterako erabilera lagatzea.
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea**
 - 6.1. HHSak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuaren eskualdeko ordenantza fiskala onestea.
 - 6.2. Udalaren eta EAeko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzaren hitzarmena, dokumentuen erregistroari buruzkoa, 39/2015 Legaren 4. xedapen iragankorra.
 - 6.3. Administrazio elektronikoaren oinarriko konponbideak elkarri emateko Lankidetzaren Hitzarmenetara atxikitzeko udal-protokoloa.
 - 6.4. 2019 ekitaldiko kontu orokorra onestea.
 - 6.5. Ostalaritza-negozioetarako aulkiekin, mahaiekin eta mahaitxoekin erabilera publikoko lurrak okupatzeagatiko tasaz salbustea.
 - 6.6. Ostalaritzako negozioetarako HHSen biltzeta-zerbitzua emateagatiko tasaz salbustea.
 - 6.7. 2020 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorraren egikaritze-egoera.
 - 6.8. "C.2 – 01" azpieroaren barruan Oy19 esparruaren xehetasun-azterketa behin betiko onestea.

Azkenengo puntua) Galde-eskeak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2020ko uztailaren 8an eginiko aurreko ohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburuak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Hau erabaki da:

1) Igorritako zirriborroaren arabera, onestea 2020ko uztailaren 8ko aurreko ohiko bilkuraren akta.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillema (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

2. Alkatezaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkariak, alkate-udalburuak hala eskatuta, Alkatezaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenen berri: 230/19 eta 2020. urteko 120tik 184ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea

3.1. Arabako Errioxako Kuadrillari eskumenak eskuordetzea HHSak biltzeko eta tratatzeko.

Aurrekariak:

1. Hondakinen kudeaketa udalerriei emandako oinarritzko eskumenetako bat da, hala ere, udalek egindako eskuordetzearen bidez, eta zerbitzuen efizientzia eta efikazia hobetzeko, posible da udalaz gaindiko beste erakunde batzuek eskumen horiek izatea; izan ere, figura juridikoak dira, eta gaitasuna dute muga-barruan oinarritzko zerbitzuak sustatzeko eta kudeatzeko.
2. Eskuordetzearekin batera udal-eskumeneko zerbitzua kudeatzeko modu zehatza onetsi behar da, esaterako, hiri-hondakin solidoen kudeaketa, eta neurri hori hartzeko beharrezkoa da Udalbatza Osoak bilkuran gehiengo osoz onestea (7/1985 47.2 art.). Hori dela eta, 2019ko urtarrilaren 8an Arabako Errioxako Kuadrillari honako hauek aurkezteko eskatu zitzaion:
 - a. Justifikazio-memoria, proposatutako kudeaketa modurik jasangarriena eta efizienteena dela jasotzen duena; zerbitzuaren kostuari buruzko txostenak izango ditu.
 - b. Zerbitzuaren kostuari buruzko txostenak, proposatutako proposamenen finantza-jasangarritasuna ebaluatzeko eta oraingo eta etorkizuneko gastuen konpromisoak finantzatzeko gaitasunari buruz jarduten duena, defizitaren, zor publikoaren eta merkataritza-zorren berankortasunaren mugen barruan, lege horretan ezarritakoaren arabera. Berankortasunari buruzko araudia eta Europako araudia.

3. Arabako Errioxako Kuadrillak eskuordetzeko proposamenean berresten du Kuadrillaren bidez zerbitzu publikoak kudeatzeko eta artatzeak eskumena hobetzen duela (ezartzeko, mantentzeko, kudeatzeko eta zerbitzua emateko kostuak murrizten dira, eta burokrazia-izapideak gutxitzen laguntzen du), eta lurralde-kohesioa sortzen duela; horri esker, kideen arteko artikulazio egokia eta zerbitzu publikoetara bidezko sarbidea lor daiteke, baterako gizarte-garapena sustatzen du, integrazioaren alde egiten du eta, gainera, tokiko plangintzaren helburuak erdiestea sustatzen du. Era berean, berreste horretatik ondorioztatu behar da eskumena eskuordetzeko ez duela arriskuan jartzen Oyón-Oiongo Udalaren finantza-jasangarritasuna. Proposamenean ez dago justifikazio-memoriarik esaten duenik proposatutako kudeaketa modurik jasangarriena denik, ezta zerbitzuaren kostuari buruz jakinarazten duenik.
4. Eskuordetze-proposamenak ez dio Oyón-Oiongo Udalari eskatzen eskuordetutako erakundearen esku baliabideak jartzeko, eskuordetutako eskumena modu eraginkorren emateko. Ezta zenbatekorik transferitzea ere, eskuordetutako eskumenaren ondorio gisa sor daitezkeen gastuei erantzuteko. Horrenbestez, eskumenak eskuordetzeko ez du arriskuan jartzen Oyón-Oiongo Udalaren finantza-jasangarritasuna.
5. Eskuordetze-proposamenak ez ditu zehazten eskuordetutako konpetentziaren behatzeko eta kudeatzeko mekanismoak.
6. Aplikatu beharreko araudia:
 - Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen 12., 5. eta 6. artikulua.
 - Otsailaren 27ko Ingurugiroa Babesteari buruzko 3/1998 Legea Orokorra.
 - Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen (aurrerantzean, TEL) 2. eta 17.17 eta 93.3 artikulua.
 - Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 h) artikulua.
 - "Beren eginkizunak edo jarduerak beste herri administrazio batzuei eskualdatzeko, baita beste administrazio batzuek emandako eskuordetzak zein kudeaketarako gomendioak onartzeko, legeak nahitaez ezarritakoak ez badira".
7. Alkatetzaren proposamena:

Hau erabaki da:

- 1.. Arabako Errioxako Kuadrillari eskuordetzea hiri-hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko zerbitzu orokorra, espedienteen zehazten diren baldintzen arabera eta eskuordetutako zerbitzu eta ahalmenen zehaztasunarekin.
- 2.. Xedapenen lehenengo atalean dagoen eskuordetzea denbora mugagaberako da; ezohiko eta aurreikusi ezin den bat-bateko ezintasuna izan ezik, ezintasun horrek zerbitzua Oyón-Oiongo Udalari itzultzea errekeritzen badu edo ezohiko beste egoera batzuk gertatzen badira.
- 3.. Oyón-Oiongo Udalak eskuordetutako erakundearen esku ez ditu jarriko eskuordetutako eskumena modu egokian emateko baliabideak. Eta ez du inolako zenbatekorik transferituko eskuordetutako eskumenaren eta horien jarduketaren ondorio gisa sor daitezkeen gastuei erantzuteko. Hala, eskumenak eskuordetzeko ez du arriskuan jartzen Oyón-Oiongo Udalaren finantza-jasangarritasuna.
- 4.. Eskuordetze-erabaki horren eraginkortasuna baldintzatzea; eskuordetutako erakundeak 2020ko azaroaren 2a baino lehenago eskuordetutako eskumena behatzeko eta kudeatzeko mekanismoak proposatu behar ditu.
- 5.. Eskuordetze-erabaki horren eraginkortasuna baldintzatzea; eskuordetutako erakundeak eskuordetzea onetsi behar du.
- 6.. Arabako Errioxako Kuadrillari erabaki hau jakinaraztea.

Aldeko 9 (bederatzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

2 (bi) abstentzio: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion).

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Gure abstentzioaren arrazoia da erabaki-proposamena ez dela aurkeztu eta bilkurara ekarri dela.

3.2. HHSak biltzeko eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen eskualdeko ordenantza onestea.

Aurrekariak:

1. Hondakinen kudeaketa udalerriei emandako oinarriko eskumenetako bat da, hala ere, udalek egindako eskuordetzearen bidez, eta zerbitzuen efizientzia eta efikazia hobetzeko, posible da udalaz gaindiko beste erakunde batzuek eskumen horiek izatea; izan ere, figura juridikoak dira, eta gaitasuna dute muga-barruan oinarriko zerbitzuak sustatzeko eta kudeatzeko.
2. Arabako Errioxako Kuadrillak, Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 1. artikulua arabera, kuadrilla udalerriek bere lurralde esparruari dagozkion gaietan parte hartzeko eta arazo orokorrak sustatu eta kudeatzeko osatutako foru izaerako lurralde entitate bezala eratzen da, eta 28. artikuluko e eta f letretan honako hau esaten da: kuadrillari dagokio interes orokorreko zerbitzuak sustatu eta kudeatzea eta, eskuordetu ostean, udalen, aldundiaren, eta zuzenbide publikoko beste erakunde batzuen eskumenak bere gain hartzea.
3. Eskuordetze-proposamenak ez ditu zehazten eskuordetutako eskumena ikuskatzeko eta kudeatzeko mekanismoak.
4. Aplikatu beharreko araudia:
 - Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen 12., 5. eta 6. artikulua.
 - Otsailaren 27ko Ingurugiroa babesteari buruzko 3/1998 Legea Orokorra.
 - Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 2., 17.17 eta 93.3 artikulua.
 - Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua: araudiak, ordenantzak eta udal-xedapen orokorrak onesteko ohiko prozedura.
5. Eskualdeko ordenantza-proposamena, arautzailea eta fiskala, konpostatze-zerbitzuari eta Arabako Errioxako udalerrien esparruan udal-hondakinak biltzeari eta tratatzeari buruzkoa.

Hau erabaki da:

1. Hasiera batean onestea eskualdeko ordenantza-proposamena, arautzailea eta fiskala, konpostatze-zerbitzuari eta Arabako Errioxako udalerrien esparruan udal-hondakinak biltzeari eta tratatzeari buruzkoa.
2. Jendaurrean jartzea 30 (hogeita hamar) eguneko epean Udalaren iragarki-taulan eta ALHAOn iragarkia jartzearen bidez. Jendaurrean egongo den epean zehar, udal-bulegoetan interesdunek espedientea azter dezakete eta egoki irizten dieten erreklamazioak eta proposamenak aurkez ditzakete. Ez bada erreklamaziorik aurkezten, ulertuko da hasiera baten hartutako erabakia behin betiko hartu dela.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel

Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Kuadrillaren proposamena ez da oso asmo handikoa eta sumatzen dugu Kuadrillak ez dituela beteko bere gain hartuko dituen konpromisoak, hala ere, ordenantza onesten dugu.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea

5. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea

5.1. Lehen arretaren barruan pediatriako kontsultarako udal-jabetzeko eraikinean aldi baterako erabilera lagatzea.

Aurrekariak:

1. Osasun Zentroko ordezkariarekin 2018tik Alkatetzak izan dituen hainbat elkarrizketetan, adierazten da horretarako esleitutako espazioa txiki geratu dela, eguneroko lan-kargari eta kontsultei dagokienez. Halaber, azpimarratzen du beharrezko dagoela haur-asistentzia (pediatria) eta gainerakoa ezberdintzeko; egungo instalazioetan ez da egiten eta, gainera, bideraezintzat jotzen da.
2. Zentroko ordezkariak jakinarazi du osasun-zentroak, foru eraikineko beheko solairuan dagoenak, ez dituela baldintza egokiak eguneroko lan-kargari eta kontsultei erantzuteko.
3. Kontuan izan behar da Oiongo biztanleria urtez urte areagotzen doala eta Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasarik handiena duen udalerrietako bat dela. Beharrezkoa da gune komunean azalera handiagoa izatea, baita kontsultarako eta horri lotutako lanetarako gordetako espazioa handitzea ere.
4. Aurreikuspena da inbertsioa hitzarmen batean edo gehiagotan eratzea dagokion erakundeekin. Udalaren nahia da inbertsioa sustatzea eta parte hartzea; hori dela eta esleitzen da kopuru hori.
5. Sindikatu Etxe zaharra 1. poligonoko 328. partzelan dago, Foru kaleko 11 zenbakian, udalerriko ekipamenduen gune nagusiaren barruan.
6. Oyón-Oiongo Udala Sindikatu Etxea izeneko ondasunaren jabea da; 2015ean salerosketaren bidez eskuratu zuen. Katastroko identifikazioa: 1. poligonoa, 328. partzela.
7. Higiezinak ez dago erabilera edo zerbitzu publikoarekin lotuta. Ondare kalifikazioa duen ondasuna da eta gaur-gaurkoz ez da erabiltzen.
8. Hori dela eta, 2019ko ohiko aurrekontu orokorrean G aurrekontu-partida hornitu zen: 920.627.000, zenbatekoa 124.000,00 euro izan ziren.
9. 2020ko uztailaren 9an Udalak Arabako Errioxako ESiri, Osakidetza, obra-lizentzia eman zion beheko solairua berregokitzeko, pediatriako behin-behineko kontsultetarako gaitzeko.
10. Alkatetzaren proposamena.

Hau erabaki da:

1. Osakidetza eskaintzea Sindikatu Etxearen beheko solairuaren behin-behineko erabilera partziala pediatriako (erizaintza eta pediatria) kontsulten beharrezkoak asetzeko. Lagatzen den espazioa Arabako Errioxako ESiren, Osakidetza, lizentzia-eskaerako planoan deskribatzen da. Behin-behineko lagapenaren epea 4 (lau) urtekoa da; berriztatu daiteke.
2. Sindikatu Etxe eraikin osoaren lagapen-eskaintza adieraztea Eusko Jaurlaritzari, oso osorik gaitu ostean, Gizarte Gaietako Sailak eta Osasun Sailak udalerriarren beharrei erantzuteko.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Alkate jn.: Nire asmoa da proposamen-erabakiaren arabera eraikin hori Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu guztietara bideratzea (Osakidetza, Lanbide). Agian, sineskorregia izan naiz, baina obren baimena eta aretoak haien esku jartzeak Oiongo kontsultategi-taldearen eta Arabako Errioxako ESIko arduradunaren eskaera bati erantzuten zion. Gure 2020ko aurrekontuaren aurreikuspenean, Sindikatuko solairua erabilera anitzeko aretoa (Gizarte Laguntza, Elikadura Osasuna eta Erregistro Zibila eta Notarioritza...) izatera bideratuta zegoen. Uren Partzuergoak ez du bulegoa Oionen mantenduko. Bigarren puntuari dagokionez, gure nahia da Eusko Jaurlaritzak erabiltzea bere zereginetarako. Egia da, zenbat eta baliabide gehiago sartu, orduan eta gehiago kostatuko zaiola Osakidetzari eraikin berria egitea.

Salvador Adán jn. (zinegotzi ez-atxikia): Printzipioz, ondo deritzogu; hala ere, apur bat labur gelditzen da.

Inclán jn.: Osasun-galarazpena dago eraikinaren gainerakoa erabiltzeko.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Erabakiaren alde gaude, baina gure herriaren beharrezan erantzuten dion zentro medikoa berria aldarrikatzen dugu.

6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea

6.1. HHSak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuaren eskualdeko ordenantza fiskala onestea.

Idazkari jaunak kontu eman du esateko HHSak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuaren eskualdeko ordenantza fiskalaren beharrezana dagoela, behin Kuadrillak eskumenaren esku-hartzea bere gain hartzen duenean; ordura arte ordenantza fiskala Udalekoa izango da.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

6.2. Udalaren eta EAeko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzaren hitzarmena, dokumentuen erregistroari buruzkoa, 39/2015 Legaren 4. xedapen iragankorra.

Aurrekariak:

- 1) Udalaren eta EAeko Administrazio Orokorraren arteko hitzarmenaren zirriborroa, dokumentuak erregistratzeari buruzkoa, 39/2015 Legearen 4. xedapen iragankorra eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p) eta 47.2.h) artikulua.
- 2) Informazio Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Onestea Udalaren eta EAeko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzaren hitzarmenaren sinadura, dokumentuak erregistratzeari buruzkoa, 39/2015 Legearen 4. xedapen iragankorra eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p) eta 47.2.h) artikulua, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako zirriborroaren arabera.
2. Eduardo Terroba Cabezón alkate jauna, Udalbatza honetako presidente gisa eta udal honen ordezkari gisa, gaitzea hitzarmen hori sinatu ahal izateko beharrezko

dokumentu guztiak sina ditzan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

6.3. Administrazio elektronikoen oinarriko konponbideak elkarri emateko Lankidetzaren Hitzarmenetara atxikitzearen udal protokoloa.

Aurrekariak:

1. 2017ko martxoaren 24an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Estatuko Administrazio Orokorrak sinatutako administrazio elektronikoko oinarriko konponbideak elkarri emateko lankidetzaren hitzarmena, horren lehenengo klausularen 2. atalaren arabera; 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren 76. zenbakian argitaratu zen.
2. 2018ko abenduaren 11n Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako Foru Aldundiak sinatutako administrazio elektronikoko oinarriko konponbideak elkarri emateko lankidetzaren hitzarmena, horren lehenengo klausularen 2. atalaren arabera; 2018ko abenduaren 24ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren 246. zenbakian argitaratu zen.
3. Oyón-Oiongo Udalak ezagutzen ditu eta eragozpenik gabe onesten ditu bi hitzarmenak, atxikitzeari dagokionean aplikatu daitezkeen guztian, eta konpromisoa hartzen du horietan ezarritako betebeharrak betetzeko sarbideari eta alderdi sinatzaileek emandako oinarriko administrazio elektronikoko konponbide teknologiko bakoitzaren erabilerari dagokionez, edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnei dagokienez. Eskumenen esparru barruan bere gain hartzen ditu Hitzarmenean Arabako Foru Administrazioarako ezartzen diren betebeharrak.
4. Informazio Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Azaltzea Oyón-Oiongo Udalak ezagutzen dituela eta eragozpenik gabe onesten dituela aurreko 1. eta 2. ataletan adierazitako hitzarmenak, atxikitzeari dagokionean aplikatzekoa den guztian.
- 2) Horietan ezarritako betebeharrak betetzeko konpromisoa bere gain hartzen du sarbideari eta alderdi sinatzaileek emandako oinarriko administrazio elektronikoko konponbide teknologiko bakoitzaren erabilerari dagokionez, edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnei dagokienez. Halaber, eskumenen esparruaren barruan bere gain hartzen ditu Hitzarmenean Arabako Foru Administrazioarako ezartzen diren betebeharrak.
- 3) Oyón-Oiongo Udala hitzarmenetara atxikitzearen eskatzea
 - a. 2017ko martxoaren 24an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Estatuko Administrazio Orokorrak sinatutako administrazio elektronikoko oinarriko konponbideak elkarri emateko lankidetzaren hitzarmena, horren lehenengo klausularen 2. atalaren arabera; 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren 76. zenbakian argitaratu zen.
 - b. 2018ko abenduaren 11n Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako Foru Aldundiak sinatutako administrazio elektronikoko oinarriko konponbideak elkarri emateko lankidetzaren hitzarmena, horren

lehenengo klausularen 2. atalaren arabera; 2018ko abenduaren 24ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren 246. zenbakian argitaratu zen.

- 4) Eduardo Terroba Cabezón alkate jauna gaitzea beharrezko dokumentu guztiak sinatzeko.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

6.4. 2019 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.

Aurrekariak:

1. Oyón-Oiongo Udalaren Kontuen Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio 2019 ekitaldiko Kontu Orokorrari, 2020ko uztailaren 1eko bilkuran.
2. 2019 ekitaldiko kontu orokorraren espedientea jendaurrean jarri da hamabost eguneko epean, Udalaren iragarki-taulan eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialaren 75. zenbakian (2020ko uztailak 6) iragarkia jartzearen bidez. Erreferentzia alfanumerikoa: Ogas/CtagenTramit –2019 ekitaldia.
3. Jendaurrean egon den epean ez da erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik aurkeztu.
4. Behin betiko onespren-proposamenean konpromiso-kredituen koadro berria dago, ondorengo ekitaldien aurrekontuen karguarekin; aurrekoa ordezkatzeko du eta 323 481001 partidari egiten dio erreferentzia; Kontzeptua: San Bizente Ikastolari (Koop. S.) dirulaguntza zuzen eta izenduna arautzen duen urte anitzeko hitzarmena, 95.000 euro 2020, 2021, 2022 eta 2023 urteetarako.
5. 2020ko irailaren 9ko Kontuen Batzorde berezian egindako erabaki-proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) 2019 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.
- 2) Ondasunen Inbentarioa zuzentzea Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 31. artikuluan jasotakoa betetzeko.

Aldeko 9 (bederatzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

2 (bi) abstentzio: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion),

6.5. Ostalaritza-negozioetarako aukiekin, mahaiekin eta mahaitxoekin erabilera publikoko lurrak okupatzeagatiko tasaz salbustea.

Aurrekariak:

1. Ostalaritza-negozioetarako aukiekin, mahaiekin eta mahaitxoekin erabilera publikoko lurrak okupatzeagatiko tasaz salbusteko proposamena.
2. 2020ko maiatzeko bilkuran hartutako erabakia, tasak eta zergak kobratzea eteteari buruzkoa.
3. Informazio-batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Hasiera batean onestea Ostalaritza-negozioetarako aukiekin, mahaiekin eta mahaitxoekin erabilera publikoko lurrak okupatzeagatiko tasaz salbustea.
2. Jendaurrian jartzea Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan aurreikusitako modu eta epeetan.
3. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hori behin betikotzat jotzea.
4. Behin betiko onspenaren erabakia arauzko modu eta epean argitaratzea.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Salvador jn.: Gogorazi nahi dut ordezkatzeko dudako talde politikoak maiatzean tasak itzultzeko eskatu zuela.

6.6. Ostalaritzako negozioetarako HHSen bilketa-zerbitzua emateagatiko tasaz salbustea.

Aurrekariak:

1. Ostalaritza-negozioetarako aukiekin, mahaiekin eta mahaitxoekin erabilera publikoko lurrak okupatzeagatiko tasaz salbusteko proposamena.
2. 2020ko maiatzeko bilkuran hartutako erabakia, tasak eta zergak kobratzea eteteari buruzkoa.
3. Informazio Batzordean egindako proposamena

Hau erabaki da:

1. Hasiera batean onestea Ostalaritza-negozioetarako aukiekin, mahaiekin eta mahaitxoekin erabilera publikoko lurrak okupatzeagatiko tasaz salbustea.
2. Jendaurrian jartzea Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan aurreikusitako modu eta epeetan.
3. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hori behin betikotzat jotzea.
4. Behin betiko onspenaren erabakia arauzko modu eta epean argitaratzea.
5. Tasa ordaindu duten subjektu pasiboak ordainketa itzulketara izapidetzea.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

6.7. 2020 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorraren egikaritze-egoera.

Alkate jaunak kontu eman du zinegotziei igorri zaiela sarreraren proiektzioa eta gastuen egikaritze-egoera, eta aurrekontua ez aldatzeko irizpidea mantentzen du, behintzat Aldundiak Obra eta Zerbitzuen Foru Planari buruz erabakia hartu arte; asmoa da inbertsio-aukerak ez eragozte.

6.8. “C.2 – 01” azpierenmuaren barruan Oy19 esparruaren xehetasun-azterketa behin betiko onestea.

Aurrekariak:

1. Adimendu SLren eskaera “C.2 – 01” azpierenmuko Oy19 esparruaren (Nafarroa etorbidea Rio Grande pasealekuko izkina) xehetasun-azterketa behin-behinean onesteko.
2. Behin-behinean onetsitako espedientea jendaurrean jarri da 20 (hogei) egun balioduneko epean, 2020ko uztailaren 27ko ALHAOn 84. zenbakian txertatuta, eta El Correo egunkariko Arabako edizioan 2020ko uztailaren 27an eta Udaleko iragarki-taulan. Jendaurrean egon den epean ez da alegaziorik egin.
3. Arabako Errioxako Kuadrillaren zerbitzuan 2020ko uztailaren 23an goi-mailako arkitektoak sinatutako txostena jasota dago.
4. Etxebizitzaren Arloko Presako Neurriak eta Hirigintza Plangintzako zein Kudeaketako Tresnak Izapidetzeko Neurriak Zehazteari buruzko 17/1994 Euskal Legearen 140. artikulua aplikatu behar da.

Hau erabaki da:

- 1) Behin-behinean onestea “C.2 – 01” azpierenmuko Oy19 esparruaren (Nafarroa etorbidea Rio Grande pasealekuko izkina) xehetasun-azterketa.
- 2) ALHAOn probintzian gehien hedatzen den egunkarietako batean eta Udaleko iragarki-taulan behin betiko onestenaren iragarkia txertatzea.

Aldeko 9 (bederatzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

2 (bi) abstentzio: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion).

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Abstentzioaren arrazoia da ez dugula dokumentaziorik jaso; aurreko batzordeetan gaia komentatu zen joan den astean, baina ez daukagu ezer idatziz, ez katastroko akatsari buruz, ez azterketa-zehatzari buruz ere. Horregatik abstenituko gara, nahiz eta ulertzen dugun ekimena interesgarria dela Oionentzako.

Azkenengo puntua) Galde-eskeak.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 22:05ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyon-Oionen, 2020ko irailaren 29an.

Udalbatzaren 2020 – IX – 16ko bilkuraren akta

Udaleko idazkaria:

O. E. Alkatetza.